# BESTELAKO XEDAPENAK

## ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

## 2734

*98/2014 DEKRETUA, ekainaren 10ekoa, Asociación Goiztiri Elkartea gizarte-interesekotzat aitortzen duena. Gizarte-ekintzako elkarte honek bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonen normalizazioa eta gizarteratze eta laneratzea bultzatzen du.*

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 74. artikuluan xedatzen denez, gizarte-interesekotzat aitortu ahal izango dira gizarte-zerbitzuak ematen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeak, hain zuzen ere, aitortzeko haien ibilbidea eta Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreak EAEko gizarte-zerbitzuak garatzeko emandako laguntza. Arauz ezartzen diren baldintzak bete beharko dituzte, betiere.

Urriaren 7ko 424/2013 Dekretuak, gizarte zerbitzuak ematen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeak gizarte-interesekotzat aitortzeari buruzkoak, gizarte-intereseko aitorpena lortzeko betekizunak eta prozedura arautzen ditu.

Haren babesean, Asociación Goiztiri Elkarteak aipatutako aitorpena eskatu du, uste baitu merezi duela gizarte-interesekoa dela aitortzea, gizarte-ekintzaren arloan bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonen normalizaziorako eta gizarteratze eta laneratzeko egiten dituen jarduerengatik.

Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak jakinarazi bezala, Asociación Goiztiri Elkartea irabazi-asmorik gabeko erakundea da, 1993an eratutakoa; haren xede nagusia da pobrezian edo gizartetik baztertuak geratzeko arriskuan dauden pertsona eta taldeei laguntzea, arrazoiak aztertuz, ondorioak arinduz, gizartea sentsibilizatuz eta horretara bideratutako ekintza eta zerbitzuak eskaini eta garatuz. Ibilbide historikoa du Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-zerbitzuak ematen; izan ere, egiaztatu du bere jarduera etenik gabe burutu duela 2008tik, Bilbo Handiko eskualdean, nagusiki.

Aipatu 424/2013 Dekretuan xedatutakoaren arabera, Jaurlaritzaren Kontseiluan adostutako dekretu bidez aitortuko da gizarte-interesekotzat elkarte hau, gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen sailburuak proposatuta, zeinak dagokion espedientea izapidetu baitu.

Horrenbestez, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2014ko ekainaren 10ean egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Aitortzea Asociación Goiztiri Elkartea gizarte-interesekoa dela, bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonen normalizaziorako eta gizarteratze eta laneratzeko burutzen dituen gizarte-ekintzen bidez Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-zerbitzuak garatzen laguntzeagatik.

2. artikulua.– Aitortzea Asociación Goiztiri Elkarteari aitorpen honen berezko eskubideak, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 74. artikuluan xedatutakoak.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko ekainaren 10ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
JUAN MARÍA ABURTO RIQUE.